Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1490

EBAZPENA, 2010eko otsailaren 25ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. Honen bidez, argitara eman da Euskadiko enpresak kanpoan sortu, ezarri eta garatzea bultzatzeko Kanpo Ezarpenetarako Gauzatu Programa arautzen duen Aginduak ezarritako esparruko laguntzak 2010eko ekitaldirako emateko deialdia.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko apirilaren 16ko Aginduak Euskadiko enpresak kanpoan sortu, ezarri eta garatzea bultzatzeko Kanpo Ezarpenetarako Gauzatu Programa arautzen du. (96. EHAA, 2003ko maiatzaren 19koa). Agindu hori beste bi Aginduren bidez aldatu da: bata, 2005eko ekainaren 29koa (124. EHAA, 2005eko ekainaren 30ekoa) eta, bestea, 2007ko ekainaren 1ekoa (2007ko ekainaren 13ko EHAA, 113. zk.).

Agindu horren 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkaturiko laguntzetarako 2010eko ekitaldiko deialdia egitea eta horretarako eman behar diren arauak ematea.

Aurrekoa aintzat hartuta, eta adierazitako Aginduaren 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Honako hau da ebazpen honen helburua: Euskadiko enpresak kanpoan sortu, ezarri eta garatzea bultzatzeko Kanpo Ezarpenetarako Gauzatu Programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak, itzuli beharreko aurrerakin gisa, 2010. ekitaldian emateko deialdia egitea.

2.– Horretarako 5.000.000 euro bideratuko dira guztira; kopuru hori Sustapen Ekonomikoko Funtsari esleituriko karguen kontura jasango da finantzaarloan, eta aurrekontu horiei aurtengo ekitaldirako dagokien erregulazioa abenduaren 23ko 2/2009 Legean ezartzen da.

Deialdi honen kontura emango diren dirulaguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko artikulu honetan ezarritako zenbatekoa edo zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena, indarreko legedian aurreikusitako kredituak lotzeko edo aurrekontuak aldatzeko erregimenari jarraiki. Beraz, zenbateko ho-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

1490

RESOLUCIÓN de 25 de febrero de 2010, del Viceconsejero de Innovación y Tecnología, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas, dentro del marco establecido por la Orden que regula el Programa Gauzatu-Implantaciones exteriores, de impulso a la creación y desarrollo de implantaciones de empresas vascas en el exterior, para el ejercicio 2010.

La Orden de 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, regula el Programa Gauzatu-Implantaciones exteriores, de impulso a la creación y desarrollo de implantaciones de empresas vascas en el exterior. (BOPV nº 96, de 19 de mayo de 2003). La citada Orden ha sido modificada por otras de 29 de junio de 2005, (BOPV nº 124, de 30 de junio de 2005), y por otra de 1de junio de 2007, (BOPV nº 113, de 13 de junio de 2007).

De conformidad a lo establecido en el artículo 10 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2010, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el artículo 10 de la Orden de referencia

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Es objeto de la presente resolución, la convocatoria para el ejercicio 2010 de las ayudas, bajo la forma de anticipos reintegrables, previstas en la Orden por la que se regula el Programa Gauzatu-Implantaciones exteriores, de impulso a la creación y desarrollo de implantaciones de empresas vascas en el exterior.

2.– Para este fin se destinará un total de 5.000.000 euros, soportado financieramente con cargo a los créditos asignados al Fondo de Promoción Económica en los Presupuestos Generales Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobados por Ley 2/2009, de 23 de diciembre.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria, no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto en la legislación vigente. No procederá por tanto la

ri agortzen denean ez da laguntza gehiago emango, eta xedapen honek une horretan bertan utziko dio eraginkorra izateari. Dagokionean, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen ebazpenaren bitartez emango da bi zirkunstantzia horien berri.

2. artikulua.– Betekizunak.

Eskatzaileek, Euskadiko enpresak kanpoan sortu, ezarri eta garatzea bultzatzeko Kanpo Ezarpenetarako Gauzatu Programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak eskuratzeko, adierazitako Aginduaren 3. artikuluan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

3. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Era berean, honako leku hauetan aurkeztu beharko dituzte eskabideak eta gainerako dokumentazio osagarria: Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Sozietatea SAren (SPRI) bulegoetan –Urkixo zumarkalea, 36-4.a, Bilbo– edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak zehaztutako lekuetan –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori–.

2.– 2010eko abenduaren 31an baino lehenago eratu beharko dira enpresa berriak, baita dagoeneko ezarrita dauden enpresen partaidetzak eskuratu ere. Era berean, inbertsioak 2010ean gauzatu beharko dira.

3. Eskabideak aurkezteko epea deialdirako ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2010eko maiatzaren 14an amaituko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak deialdi-ebazpen honek.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 25a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.

concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia de la presente disposición. En su caso, de ambas circunstancias se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Innovación y Tecnología.

Artículo 2.– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden por la que se regula el Programa Gauzatu- Implantaciones exteriores, de impulso a la creación y desarrollo de implantaciones de empresas vascas en el exterior, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la Orden de referencia.

Artículo 3.– Solicitudes y plazo.

1.– Asimismo, deberán presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), cuyas dependencias se encuentran en Bilbao, Alameda de Urquijo, 36-4º, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

2.– Tanto la constitución de nuevas empresas como la adquisición de participaciones de empresas ya existentes, deberán producirse antes del 31 de diciembre del ejercicio 2010. Así mismo, las inversiones deberán producirse dentro del ejercicio 2010.

3.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará a partir del día siguiente al de la publicación de la presente resolución de convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará el día 14 de mayo de 2010.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2010.

El Viceconsejero de Innovación y Tecnología,
JUAN IGNACIO GOICOLEA RUIGÓMEZ.